# Prof. Dr. Ignacio Izaguirre Fort (1920-2011)

# *Ignacio Izaguirre Fort jauna (1920-2011)*

Mirentxu Oyarzabal

Ex-Presidenta de la SVNP
*Euskal Herriko Pediatria Elkarteko ex-Lehendakaria*

El 15 de Septiembre de 2011 fallece en su domicilio Don Ignacio Izaguirre.

Nacido en Zarautz el 18 de julio de 1920 en el seno de una familia tradicional y católica de la época. Ocupaba el puesto noveno de una serie de trece hermanos. Cursó los estudios académicos de de bachillerato en el Colegio Antoniano de Zarautz. En su familia hubo varios médicos: su padre, abuelo, tío paterno y un hermano. Aunque fue aconsejado por su padre para que estudiara Ingeniería, la prestación del Servicio Militar, donde convivió con soldados que estudiaban medicina, fue determinante para la elección de su carrera.

Inició su carrera en la Universidad de Zaragoza, pero estalló la Guerra Civil y tuvo que acudir al frente como sanitario, asistiendo a los horrores y consecuencias de los combates en primera línea del frente. Tras finalizada la guerra, reanudó los estudios en la Universidad de Salamanca donde se licenció en el año 1944.

Tras finalizar los estudios de Licenciatura, quiso especializarse en Pediatría y Puericultura del Hospital Marqués de Valdecilla de Santander, dirigida por profesor Guillermo Arce. En la Escuela, hizo grandes amigos y algunos de ellos brillaron posteriormente profesional y académicamente como el catedrático de Pediatría de la Universidad de Valladolid, Ernesto Sánchez Villares.

El profesor Arce le aconsejó que ejerciera la especialidad en un hospital o en una ciudad, pero él prefirió volver a su pueblo donde fue pediatra de varias generaciones de zarauztarras hasta que se jubiló. En su propio pueblo recibió Mención de Honor a su trayectoria profesional y humana.

Recuerdo su sonrisa y su cercanía cuando tuve el placer de conocerle. Don Ignacio fue un médico pediatra con una formación inusual para su tiempo. La jubilación no fue óbice para ir cada día en tren al

*Ignacio Izaguirre jauna 2011ko irailaren 15ean hil zen, bere etxean.*

*Zarautzen jaioa zen, 1920ko uztailaren 18an, familia tradizional eta katoliko batean. Hamahiru anai-arrebatan bederatzigarrena zen. Zarauzko Antoniano ikastetxean egin zuen batxilergoa. Familian hainbat mediku izan zituen: aita, aitona, aitaldeko osaba eta anaia bat. Aitak ingeniaritza ikastea aholkatu bazion ere, soldadutza egin zuenean medikuntza ikasten ari ziren soldadu batzuekin elkartu zen, eta hori erabakigarria izan zen bere karrera hautatzeko.*

*Zaragozako Unibertsitatean ekin zion karrerari. Hala ere, laster Gerra Zibila hasi eta frontera joan behar izan zuen erizain; han ezagutu zituen bertatik bertara lehen lerroko borrokaldien izugarrikeriak eta ondorioak. Gerra amaitutakoan, ikasketekin jarraitu zuen Salamancako Unibertsitatean eta 1944an lizentziatu zen.*

*Lizentziaturako ikasketak amaitu ondoren pediatrian eta puerikulturan espezializatu nahi izan zuen, Santanderreko Marqués de Valdecilla ospitalean, Guillermo Arce irakasleak zuzendutako eskolan. Eskolan lagun handiak egin zituen. Horietako batzuk geroago nabarmenduko ziren eremu profesionalean eta akademikoan, hala nola Ernesto Sánchez Villares, Valladolideko Unibertsitateko Pediatriako katedraduna.*

*Arce irakasleak ospitale batean edo hiri batean jardutea aholkatu zion. Hala ere, berak bere herrira itzuli nahi izan zuen, eta han hainbat zarauztar belaunaldiren pediatra izan zen, erretiroa hartu arte. Haren lanbide eta giza ibilbideagatik Ohorezko Aipamena eman zioten herrian.*

*Gogoan ditut haren irribarrea eta hurbiltasuna, bera ezagutzeko plazerra izan nuenean. On Ignacio mediku pediatrak ezohiko prestakuntza zuen bere garaian. Erretiroa hartzea ez zuen oztopo izan egunero-egunero trena hartu eta Donostiako Ospitalera joateko, "egoiliar nagusi" gisa jardutera eta haur-kardiologiari buruz (bere zientzia-arlorik gogokoenari buruz) "gehiago" ikastera. Eta bide batez, ondo*

Hospital Donostia como "residente mayor" a aprender "más" de Cardiología Infantil, su área científica predilecta. Y de paso, me consta personalmente, a visitar a sus amigos y conocidos ingresados en el Hospital.

Por todo ello, la Sociedad Vasco-Navarra de Pediatria y en su nombre la junta directiva que yo presidía lo propuso para la METOPA de honor para la AEP.

Su hijo Javier, pediatra la recogió en su nombre en el Congreso Nacional de la AEP, celebrado en la ciudad de Murcia el año 2.005.

Nos deja un recuerdo maravilloso y será un referente en nuestros quehaceres personales y profesionales.

A toda su familia, y especialmente a su hijo Javier, compañero nuestro, les transmitimos nuestro afecto y cariño.

Goian Bego Ignacio Izaguirre Jauna

*Pamplona, 1 de diciembre de 2011*

*dakit nik hori, ospitalean sartuta zeuden lagun eta ezagunak bisitatzera.*

*Hori dela eta, Euskal Herriko Pediatria Elkarteak eta, horren izenean, ni lehendakari ninduen Zuzendaritza Batzordeak AEPren Ohorezko METOPArako proposatu zuen.*

*Haren seme eta pediatra Javierrek jaso zuen haren izenean, 2005ean, Murtzian egindako AEPren Kongresu Nazionalean.*

*Oroitzapen zoragarria utzi digu eta gure zeregin pertsonaletan eta profesionaletan erreferentziatzat izango dugu beti.*

*Hortaz, haren familia guztiari eta, batez ere, haren seme eta lankide Javierri, gure estimu eta berotasuna helarazi nahi dizkiogu.*

*Goian Bego Ignacio Izaguirre Jauna*

Iruña. 2011ko abenduaren 1a